

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2022ko martxoak 4 - 1219. zenbakia

50 URTEKO IBILBIDEA EUSKARA ETA EZAGUTZA SUSTATZEN



2 MÓ 229€

BETAURREKO PROGRESIBO



(BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE)

Kontuz hartu optikaren karguaren erantzuzkoria.



045 11006

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com

+ osasun gida

Dentistak



arat
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@arathertzklinika.com
www.arathertzklinika.com
Hertz Etxebarria 7, 48948

UniverSalud
Mutua, kongaino eta kolektiboki handienak konuzatuko zentzu



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Estetika




abontza
clínica estética

Dr. J. Ramon Fdez. Cuevas

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - Ibaia 943 206 044



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. INIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 beheko esku. info@eibarhertzklinika.com
943 637 076 - 688 884 808 www.eibarhertzklinika.com



MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. uk. 843-702886

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
Fisioterapia

- FISIOTERAPIA
- KINESIOLOGIA
- PATRIKIA
- TRATAMENDUAK
- KINESIOLOGIA + FISIOTERAPIA

FISIOTERAPIA ZENTRIA

ARRAGATA, 20
Tfn. 943 53 06 42
www.anehondia.com



Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09:00vatik 13:00vatara eta 15:00vatik 20:00vatara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnos: 943 20 72 17



Unzaga Plaza
Hertz Klinika - Clinica Dental

B. Izaguirre eta M. Orozco

Unzaga Plaza, 5-4. ezkerre Tel. 943 70 23 85

Ginekologia



GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetria
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Erebol, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugiborro: 677 551 850



Eibarko Baso Biziak-ek bazkide kanpaina abiatuko du

Eibarko Baso Biziak natur taldeak bazkide kanpaina berri bati ekingo dio martxoaren 5etik martxoaren 27ra. Taldeak, dagoeneko, bi urteko ibilbide sendoa egin du gure ingurumenaren alde. Dakizuen bezala, gure taldearen proiektuak etorkizunari keinu egiten dio helburu hauekin: Eibar eta bere inguruko basoak kontserbatu eta berreskuratzea, lurraldearen zaintza eta lur sailak herrilur bihurtzea lurrak erosituz, lur jabeekin lagapen hitzarmenak sinatuz, mendi irteerak antolatuz eta landaketak eginez.

Horrez gainera, erakunde publiko eta pribatuak bertako basoen eta haien ondare naturalaren kontserbazioan inplikatzeko ekimenak sortzea eta burutzea Udalarekin bilerak eginez Plan Urbanistikoan bertako basoak kontserbatu eta biodibertsitatea defendatzearen aldeko neurriak hartu eta arautu dituzten; herriko ikastetxeetan tailerrak antolatzeko, herriko zein inguruko enpresa/lantegiekin gure helburuak bultzatzeko proiektuak lantzea eta hitzaldiak antolatzeko.

Horrek guztiak osatzen du gure proiektua, baina aurrera eramateko ezinbestekoa zaigu herritarron partaidetza, bai antolakuntza mailan zein ekonomikoan, beraz, erronka gisa zera planteatzen dugu: bikoiztu nahi dugu orain dugun bazkide eta 200eko langa gaitu. Oraindik bazkide ez bazarete, animatu zaitezte eta animatu baita oraindik gure taldera arrimatu ez direnak ere. Azaldu zer egin dugun bi urte hauetan: sinadura-bilketa, argazki-erakusketa, mozioa sartu udaletxean, hitzaldia antolatu, erreka garbitu, ezkurak bildu, mintegia osatu; eta aurrerantzean, zuhaitz landaketei ekingo diegu.

Kanpaina bultzatzeko mahaiak jarriko ditugu ostiral, larunbat eta igandetan Urkizun, Untzagan eta Amañan jendeari aurrez aurre gure proiektua azaltzeko. Kanpaina zabala antolatuko dugu eskuorri eta pegatinen bidez, mendi irteera batekin bukatzeko. Helburua talde sendo bat osatzea da, bai partaidetza aldetik, zein ekonomikoki. Bidelagun nahi ditugu helburu hauek gogoko dituzten eibartarrak, denon artean, auzolanean, aurrera egin ahal izateko.

Eibarko Baso Biziak

“Urdaibaiko Guggenheima Bilbokoaren antitesi bezala aurreikus-ten dugu. Bisita azkarra duen museo urbano eta tradiziozko baten orde, bestea naturan integratuta, prozesuetan zentratuagoa eta bisita lasaiagoa eskainiko duena izango litzateke. Orain Europatik datozen Next Generation funtsekin aukera berria zabaltzen zaigu. Dena dela, Bilboko Guggenheima ere ezinezkoa izango zen gaur egun egitea, orduan ere apurtzailea zen proiekturako lan korala behar delako, epe motzerako jendeak ikusten ez dituen proiektuak bideratuko dituzten politikoak. Lidergoa behar da horretarako. Eta Bilboko ez da Pradoko Museoa: babes soziala lortu badu ere, kontsentsu politiko oraindik ez da eman”.

JUAN IGNACIO VIDARTE, Guggenheim Bilboko zuzendaria

“Planetan gero eta integratuago gauden mundua sortzen dihardugu. Orain dela 200 urte inork ez zukeen ekonomia globalean eta aldaketa klimatikoan pentsatuko. Kasualitatez, inork ez zuelako planteatu, zibilizazio global bat sortu dugu, eragin globala duena, baina betikoak jarraitzen dugu izaten, tribuko espeziemenak. Taldeetan banatzen jotzen dugu eta besteekiko mesfidatiak izatera. Hor dago kontraesana: zibilizazio globala izanda ere, erabakiak tribalak jarraitzen dute izaten. Ez dugu asmatzen ekonomia egonkortzen, etor daitezkeen gerrek arduratzen gaituzte -potentzia nuklearrak tartean daudela- eta, klimarengatik arduratuta egonda ere, ez dugu ezer egiten”.

MARTIN WOLF, Financial Times-eko editorea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ODOL-BATU.- Kolpe bat jasotzean geratzen den ubeldura. "Mallukiakin jo atzaparra eta odol-batua egin dot".

ODOL BERO.- Erraz hasarretzen dena. "Oso odol-berua zan eta kartzelarako bidia egin eban".



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Maitane Campos eta
Malen Illaramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Ana Aizpurua
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
8.150 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

TUTULUMENDI



Idurre Iriando

Julen Zabaleta “Yulen” marrazkilaria hil egin da

>>> Elgoibarren jaio eta bizitzaren zatirik handiena Eibarren eman duen Julen Zabaleta ‘Yulen’ marrazkilaria zapatuan hil zen, 101 urterekin. Zehaztasun handiz egindako marrazkiak Euskal Herriko historiaren lekuko izan dira, eta demaseko legatua laga du artista eta pertsona moduan.

Julen Zabaleta Barrenetxea 1921eko otsailaren 14an jaio zen Elgoibarko San Bartolome kalean. Sasoi batean Sallobente-Ermuaran auzoko Musillo baserrian ere bizi izan zen, eta auzoko eskolara joaten zen. Aita Agirre eskolan jarraitu zuen lehen hezkuntza ikasten, eta lanbide heziketa ikasketak ere bertan egin zituen. Bernardo Ezenarro izan zuen marrazketa artistiko eta lineal ikasgaiaren irakasle, eta haren lekua hartu zuen ondoren Julenek berak.

Elgoibarko forjetan hasi zen lanean, eta soldadutza amaitu ostean Jose Leon Ziaranekin hasi zen lanean, tornulari. Jarben egin zuen lan ondoren, eta han hasi zen delineatzaile lanean. Geminisen ere egin zituen urte batzuk, Inca enpresan ere bai eta azkenik Goitin, erretiroa hartu zuen arte. Danobatentzat



ere egin zuen lan, baina Goitiko langilea zen.

Marrazteko zaletasuna izan zuen umetatik, eta Euskal Herriko eraikin, festa, pertsonaia, paisaje eta bestelakoak marraztu ditu 101 urte hauetan bere lumaz. 7.000 marrazki inguru egin ditu. Makina bat historialari eta idazleren liburuak ere ilustratu ditu. 2018an Debege-sak ‘Gure Balioak’ saria eman zion. Elgoibarko Udalaren eta herriko historialarien laguntzarekin ‘Yulen 100 urte’ liburua aurkeztu zuten urtarrilean, Elgoibarren 675. urteurrenaren harira. Goian bego.

Trenaren zarata neurtuko dute

>>> Euskal Trenbide Sarea (ETS) entitate publikoa zarata eta bibrazioak neurtzeko aparatu batzuk jartzen hasi da trenbidean, San Juan kalearen amaieraren eta Torrekuaiko Eibarko Ospitale inguruetan artean. Neurgailu horiek —haietako lau zaratarako eta bat bibrazioetarako— trenak eremu horretatik igarotzean sortzen dituen bi parametro horien mailak zehaztea du helburu, datuak jaso eta, ondoren,



eragin akustikoari buruzko azterlan bat egiteko.



Omenaldi eder eta hunkigarria

>>> Felix Elkoiriberen omeneko ekitaldia hartu zuen Coliseo antzokiak domekan eta omenduak hunkituta hartu zituen Ikasten elkarteak, Eibarko Txirringulari Elkarteak, Eibar

foball taldeak eta Untzagako jubilatutako emandako oroigarriak. Amaiera biribila emateko, “En mi viejo San Juan” abestu zuten antzokian bildutako guztiek.



Jabetze Eskolako ikastaroetarako aurrematrikula zabalik dago

>>> Udaberriko Jabetze Eskolako ikastaroetarako aurrematrikula martxoaren 31ra arte egongo da zabalik. Ikastaro eta tailerrei buruzko informazio zehatza www.eibar.eus/eu/berdintasuna-andretxea helbidean kontsultatu daiteke. Izen-emaitea ere bertan egin behar da.

Hauek dira kurtsoak: "Bizitzarako mindfulness: ahalduntze-tresna" (maiatzak 2, 9, 16, 23 eta 30 eta ekainak 6 eta 13, astelehenak, 10:00etatik 12:15era). Eneka Delgadok emango du (euskaraz); "Bizitzaren korapiloak askatzen: makrame-tailerra" (maiatzak 4, 11, 18 eta 25 eta ekainak 1 eta 8, eguaztenak, 17:00eta-

tik 20:00etara); "Bizitzarako mindfulness: ahalduntze-tresna" (maiatzak 6, 13, 20 eta 27 eta ekainak 3, 10 eta 17, bari-xakuak, 17:00etatik 19:15era); "Hartu arnasa! antsietatea kudeatzeko tailerra" (maiatzak 12 eta 26 eta ekainak 2, 9 eta 16, eguenak, 17:30etik 19:30era); "Pelvic Floor Fest (Zoru Pelbikoaren Jaia)" (maiatzak 14, zapatua, 11:00etatik 14:00etara). Juncal Alzugarai emango du, euskaraz; eta "Barrez lehertu behar dut! Umore-tailerra ikuspegi feministatik" (maiatzak 21, zapatua, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara). Saio guztiak Andretxean izango dira.

Eskualdea suspertzeko ponentzian hartu du parte Debemenek

>>> Eusko Legebiltzarrean Debabarrena eskualdea suspertzeko egunotan garatzen ari den ponentzian hartu dute parte Debemen elkarteko Agurtzane Etxaniz eta Amaia Esnaolak, aurreko barixakuan egin zen saioan. Debemen landa garapenerako elkarteak aurkezteaz gain, Debabarreneko landa eremuaren deskribapena eta nekazaritza aktibitatearen egokieraren berri eman zuten.

Gainera, eskualdearen kohe-sioa eta garapena lortzeko, azpiegitura eta zerbitzu egokiez hornitutako eta nekazaritza ardatz duen landa eremu bizi-

bat izatearen garrantzia azpimarratu zuten. Esandakoari jarraituta, "oinarrizko azpiegitura aldetik, bertako biztanleen bizi kalitatea hobetu beharra dago, baita landa bideen egoera ere. Tokiko administrazioei landa bideak konpondu eta mantentzeak esfortzu ekonomiko handia suposatzen die. Ur-edangarri sarea ez dago hedatuta, ezta saneamendu sistemarik ere". Hirietan dauden zerbitzuetara (osasun eta ongizate zerbitzuak, aisialdia, kultura...) ailegatzeko garraio publikoaren zerbitzuan gabeziak daudela gaineratu zuten.



martxoaren 10ean
50 urte...

Bambi

calzados

ERREBAL, 5
TEL. 943 20 32 29

... bi belaunaldiren oinak janzten

FUNEUSKADI Grupo Asistia

FUNERARIA MUGICA Funeruskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27

Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



Ukrainarako laguntza

>>> Ukraina-Euskadi gizarte eta kultura arloko eta garapenerako lankidetzako elkartetik deialdi berezia egin dute Ukrainan egoera zaila bizitzen ari direnei laguntzeko. Janari, arropa eta botika bilketa hasi dute Eibarren eta aurreikusi daiteke datozen egunotan ere janaria eta beste lehengai batzuk batzen jarraituko dutela. Nahi duenak diruz laguntzeko aukera ere izango du, donazioen bidez, honako kontu zenbakian: ES16 2095 5001 00 9114437029. Kontzeptuan 'donazioa' hitza jartzeko eskatu dute. Ukraina-Euskadi gizarte eta kultura arloko eta garapenerako lankidetzako elkar-tearen kontua da. Ukraina-Euskadi gizarte eta kultura arloko eta garapenerako lankidetzako elkar-tearekin harremanetan jartzeko: ucraniaeuskadi@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke edo honako telefonoetara deitu: 642 772 760 / 636079 690. Elkartekoek hiriburuetan ere jasoko dute materiala.

Eibarko Udalak, bestalde, 3.000 euro bideratuko ditu, laguntza humanitario gisa, Ukrainan gertatzen ari den gerraren ondorioak arintzeko.

Aste honetan hasi dira Sansaburu, Bista Eder eta Errekatxuko etxeak eraisteko lanak

>>> Udaleko Obra Sailak orain dela gutxi jaso du Loiola enpresa sustatzaileak Bista Eder, Errekatxu eta Sansabururen egingo dituen lanen egutegia, Errekatxuberri bizitegi-sustapen berria eraikitzeko obretarako. Astelehenean hasi zituzten Sansaburuko 1. eta 3. zenbakiak eta Errekatxuko 4. zenbakia eraisteko aurretiazko lanak: bertako bizilagunek etxeak laga dituztenez, eraikin horien barrualdea hustuko dute eta, ondoren, eraisketarekin hasiko dira (martxoaren bigarren hamabostalditik aurrera). Bista Ederreko 12. zenbakiko lanak, bestalde, geroago egingo dira. Hasierako lan hauen eraginez, segurtasun-kontu batengatik, Portalea aldameneko eskailetarako sarbidea (Bista Eder kalea Eulogio Garate eta Mutiolarekin lotzen dituztenak) itxi egingo dute. Hala ere, bertan dagoen igogailua martxan egongo da uneoro, oinezkoen joan-etorria bermatzeko. Eulo-



gio Garate eta Errekatxu kaleen arteko oinezkoentzako pasabidea ere itxiko da.

Lanek trafikoari ere eragingo diote: eraikinak eraisteko lanen lehen hilabeteetan, Errekatxuko 4. zenbaki-inguruaren eta Bista Eder kalearen artean, errepidea moztu eta trafikoa eten egingo da aldizka, lanen ondorioz.



Lurraldebusek eta Euskotrenek hiribarruko tarifa kobratzea eskatu du EAJ-PNVk

>>> Hirigune barruko garraio zerbitzuaren prezioa bateratzea proposatu du EAJ-PNVk, Eibarko auzo batetik besterako bidaietan Lurraldebus eta Euskotren zerbitzuetan ez dezaten Udalbusa baino gehiago kobratu. Izan ere, bi zerbitzu horiek ez dute Udalbusaren tarifa kobratzen, herri artekoa baizik. Jon Pérez Illana EAJ-PNVko Trafiko eta Ingurumen zinegotziaren berbetan, "ez da bidezkoa berdin kobratzea Urkizutik Amañara joateko, edo Ermutik Mendarora joateko. Hiribarneko zerbitzua ezin da kobratu herri artekoaren prezioan". Horregatik, hori aldatzeko eskae-

ra luzatuko diote Gipuzkoako Garraio Agintaritzari.

Jeltzaleen iritziz, garraiobide publiko guztietako tarifak berdintzeak "Eibar barneko joan-etorrien mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua egiten du; garraio publikoaren suspertzea eta indartzea klima aldaketaren aurkako eta ekologiararen aldeko berebiziko tresna baita, eta pertsona guztien gizarte kohesiorako lanabes eraginkorra ere bai".

Eibarren hiru garraio zerbitzu publiko daude MUGI sistemaren barruan integratuta: Udalbus, Euskotren eta Lurraldebus.



Iraia Muñoa

IRAIA MUÑOA

Aktibo, osasun mentala babesteko

Aspalditik gailtza entzuten adituen ahotik daramagun bizi estiloak (jaten dugunak, kirola egiteak, toxiko ezberdinen kontsumoak...), eragina daukala gure osasunean. Izan ere, horrek guztiak hainbat gaixotasunetik babestu gaitzake edo horiek sortzea eragin, bai gaztaro, helduaro, zein zahartzaroan. Horren harira, azken urteetako ikerketa epidemiologikoen emaitzek diote pertsona adindunek jarduera fisikoa egitea Alzheimerra eta beste demenziak ekiditeko onuragarria dela edota bizimodu sedentarioa urtero lau milioi demenzia kasu baino gehiagoren jatorria izan daitekeela. Animalietan frogatu izan denez, ariketa fisikoak gaitasun kognitiboak eta konexio neuronal berrien sorrera eragiten du. Baina nola aztertu daiteke maila molekularrean gizakion burmuinetan ariketa fisikoak sortzen duen onura?

"Jarduera fisikoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da burmuinean biltzen den proteina sinaptikoen kopurua, gaitasun motoreak sustatuz"

Hori ikertu nahian Euskal Herriko Unibertsitateko Farmakologiako departamentuko zientzialariak Chicagoko "Rush Alzheimer's Disease Center"-arekin elkarlanean dabilta, 1997. urtetik martxan den "Memoria eta Zahartzea" proiektuan. Lortu dituzten azken emaitzetan 404 bolondresek parte hartu dute (guztiak adin nagusikoak) eta eguneroko jarduera fisikoa monitorizatu zaie hil aurreko 3,5 urteetan batz bestea. Hil ostean, beraien organoak zientziari eman dizkiote, besteen artean garuneko eremu ezberdinak aztertu ahal izateko. Lortutako emaitzek adierazi dute jarduera fisikoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa dela burmuinean biltzen den proteina sinaptikoen kopurua, gaitasun motoreak sustatuz. Proteina horien funtzioak sakonago aztertzen dituzten bitartean, emaitza hauen bidez Alzheimerra eta zahartzaroari lotutako neuropatologiaren oinarri molekularrak finkatzen hasi dira, gaixotasun hauen etorkizuneko terapiak aurkitzeko ezinbestekoa izango dena. Eta gainera, ariketa fisikoak osasun mentalean dituen onurak adierazi dituzte, zahartzaro aktiboaren eta sedentariismoa gutxitzeko estrategien sustapenaren garrantzia agerian utziz. Beraz badakizue, kirola egin baita zahartzaroan ere!

Albistean gehiago sakondu nahi duenak "Alzheimer's & Dementia" aldizkari zientifikokoan eskuragarri du artikulua (DOI: 10.1002/alz.12530).



Aitor Buendia

AITOR BUENDIA

Energia-eraginkortasuna gure baserrietako teilatuetan

Felix Ajuria Otxandiano artzaina da Oletan (Araba), "Kerixara" bere gaztandegian. Gainera, Idiazabal Gaztaren JD-ren presidentea da. Baina gaurkoan beste kontu batengatik ekarri nahi dut ...eta kitto!-ren atal honetara, eta ziur nago, gure baserri-tarren interesekoa izango dela. Latxa Energy izeneko proiektu pilotu batean murgilduta dago, eta, horri esker, etxeko ekonomia ororentzat oso garrantzitsua den zerbait gauzatea lortu du: ohiko energia elektrikoaren kontsumoa murriztea, besteak beste,

gaztandegiko teilatuan eguzki-plakak ezartzeari esker.

"Gero eta jasangarriagoa den energia-sistema lortzea da helburua"

«Latxa Energy»-ren helburua da ardi latxen ustiategiaren ingurumen-portaera hobetzea, energia-eraginkortasunaren, energia-sorkuntzaren eta ingurumen-aztarnaren murrizketaren bidez. Gero eta jasangarriagoa den energia-sistema lortzea da helburua, lehiakortasunari, hornidura-se-

gurtasunari eta karbono baxuari dagokienez. Joan den astelehenean, Arabako Arkauteko Abeletxe Eredua deiturikoan aurkeztu ziren proiektu bikain honen azken emaitzak. Bertan egiaztatu genuen bertaratu zirenen artean harridura zela nagusi, lortzen den eraginkortasun energetikoagatik eta, batez ere, energia hori autokudeatzeko gaitasunagatik, indarrean dagoen sektore elektrikoarekiko gaur egun dugun mendekotasunarekin alderatuta.

Latxa Energyren Talde Operatiboa zortzi erakunde sektorialek osatzen dute: Kerixara gaztandegia, ardi latxarena; Noemi Salazar Gómez, talde eragilearen koordinatzailea; Etxezuri EZ, ardi latxaren beste gaztandegi bat; Artzai Gazta, artzai gazta egiten duten Artzainen Elkartea; Latxa Esnea koop, ardi latxaren artzainen kooperatiba; Goiener taldea, energia berriztagarria sortzeko eta kontsumitzeko proiektu kooperatiboa; Neiker, euskal nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna hobetzen laguntzen du; Azti, zentro zientifiko eta teknologikoa

Elkarrekin egoteko aukera dugun guztietan, mugikorra erakusteko eskatzen diot Felixi. Hor bertan, bere telefonoan, berehala egiaztatzen du nola ari den energia autogeneratzen. Beste gauza batzuek ere hitz egin dugu, gure SD Eibar maiteak, esaterako. Gogoratzen duzue Calbeton kaleko "Ochandiano"? Felixen bigarren abizenari dagokionez, Haundixia, Félix!



Gogo biziz ospatu ditugu aurtengo Aratosteak

Azken bi urteetan ospatzeko girorik ez da egon, baina aurten jairako gogo biziz irten da jendea kalera. Egitaraua ohikoa baino murriztagoa izan arren, jarduera guztietan pozarren ibili dira haur zein helduak. Eguen Zuri egunean ikastetxe barruan ospatu zituzten haurren jaialdiak oraingoan, baina eskolatik irtenda musika eta dantzarako tarteak egon zen, Adolfo Jainagaren trikitalarien kalejiran eta Mugi Pandero taldearen erromerian. Barixaku Erregularrean, berriz, Hungariako kaldereroak herriko kaleak kantu eta dantzekin alaitzen ikusi genituen berriro. Eta Aratoste Zapatuan familia eta kuadrilen koko-jantziek koloreztatu zituzten Untzaga eta inguruko kaleak. Taberna lehiaketa ere egin da eta saridunak Arkupe (Harry Potter), Gastro gilda (Feria de Abril) eta O'hara ("Coco" filma) izan dira.



ARATOSTEETAKO BIDEOAK IKUSTEKO:





Ama izan bezperara arte lanean

Astelehenetik zapatura bitartean egiten zen lan garai hartan. Adelaren kasuan, ama izan bezperaraino lanera joan zela kontatzen du: lantokiko atea zabaltzen ari zela erdiminak igarri eta itzuli zen etxera. Nahiz eta hiru hilabeteko amatasun-baja zegokion, etxean aspertu eta lanera denboraz aurretik itzuli zela kontatzen du.



Adela Telleria, Aurrerako bulegoan (1948). ANTONIO SARASUA GISASOLA BILDUMA.



Adela Telleria Gallastegui (1924)

Alejandro Telleria Eibarko “Alkate Txikia” osaba zuen eta 1931n, Primo de Riveraren diktaduran hilabete batzuetan alkate izandako Timoteo Zubiate, berriz, aitagarreba. Goi mailako ikasketak egin zituen Baionan. Emakumezkoa izan arren, lantegira joan nahi zuen eta Aranberri Hermanos lantegian izan zuen lehen aukera. Ezkondu ostean ere lanean jarraitu zuen. Lantegiari eta bulegoari buruzko azalpen ugari ematen ditu, baita Aurrera fundizioko lan motei buruzkoak ere: lan baldintzak, soldatak, emakumeak lan munduan...

Adela Telleriari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Astelehenetik zapaturaino. Denpora luzian. Pentsaizu, nik euki nittuanian bikixak, euki nittuan “el 8 de Enero”, “día 6” izan zan “día de reyes”, jaixa. Hurrengo egunian, zapatua, biharrera ta hurrengo egunian euki nittuan bikixak. Bestiakin be, nausixakin be, jaixo zan “el 26 de Febrero” ta “24 de Febrero” izaten zan Aurrera-n jaixa modukua, “consejo de administración” izaten zan ze ha zan “el día que se fundó” ta orduan, izaten ziran ba “reunión de todos los socios”. Orduan ba, kunpliduta zela neguan ba, ez nintzan juan. Baina, hurrengo egunian banindoian, pretauta neguan ta banindoian. Amak esaten estan “ofizinan euki bihar dozu umia!”. Banindoian, zabaldu neban atia ta sentidu neban zeoze, ta etxera. Hurrengo egunian euki neban umia. Orduan hiru hillabete emoten zittuen baina ni aspertu nintzan etxian ta gaiñera ez eban eitten egualdirik umiak in urtetzeko. Beti eurixa, edo hau edo bestia, hotza... ta ya, abrilkeko lehelengo egunetan juan nintzan biharrera. Ta bestiakin be bai. Hiru hillabete egoten ziran; nahi bazenduan aurretik hilabete eta erdi hartu ta gero bestia. Orduan baeguan. Seguro de enfermedad zan. Eitten zanian likidaziñua, orduantxe etortzen zan”.

E
IBARTARREN



Eibarren ez ezik, Alfa mundu osoan zehar izan zituen josten irakasteko akademiak. Argazkian, Zaragozan egon zena. ALFA

Inguruko herrietako neska josten ikastera Alfa-ren eskolara

Inguruko herrietako neska gazteak joaten ziren Alfa-ko eskolara josten ikastera. Ezkontzako arrea prestatzearen joaten ziren batez ere. Josteko makinak asko saltzen ziren orduan; etxe bakoitzean bat. Jostunak ere asko ziren.



Amaya Arriola Ormaechea
(1933)

Alfan lan egindakoa. Josteko makinak egiteaz gainera, bordatzen ikasteko eskola bat ere bazuen Alfa lantegiak. Amaia izan zen bertako irakasleetako bat. Sasoi batean inguruko herrietan ere jardun zuen josten irakasten.

A HOTAN

Amaya Arriolari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Ba, normalian gaztiak. Ezkondutakuak be bai, baiña normalian... Han denporan, badakizu, arreua-ta eitten zan. [Bai, ez? Ohitura haundixa egoten zan] Buenoo! Izaten zan, ba... Ta, jeneralmente, ba, neska gaztiak, arreua eitteko ta. [Hori, ez? Preparauta egoteko ta...] Bai, bai, gehixenak. Ezkonduak be bai etortzen ziazan, e! Baiña gehixenak gaztiak. Eta etortzen ziazan herri guzti... inguruko herri guztietatik.[Eta ze herrittatik edo...?] Ba, Bergaratik be asko, Debatik, Elgoibartik, Ermutik... en fin. Ondarruatik... Ni akordatzen... Askok, e! Zekan auje bat “terrible”. Bai. [Eta orduan makiñak asko saltzen zian inguruan?] Bai! Orduan bai. Fijate! Oin makiña zer dan bez gaztiak. [Ta orduan bai?] Bai, asko! Askok. Jostunak be asko ziazan orduan. Josteko be asko, ez bordatzeko bakarrik. Badakizu zenbat jostun zeuazen? Hainbeste denda oin erropekin ta... Lehen ez zeuazen! Oseake... Askok, asko saltzen zan. Askok. [Ixa etxe bakoitzian egongo zan, ez?] Bai, segurutik! Segurutik etxe guztietan! Segurutik! [Ta orduan, lehenengotik hori, josten ikasi pixkat eta gero ya bakoitzak...] Bai. Askok”.



Ane Sarasua eibartarrak 2000. urtean hartu zuen UEUko Idazkari Nagusi kargua. ANA AIZPURUA

<<< ANE SARASUA ARANBERRI • UEUko Idazkari Nagusia >>>

“Eibarrek arnasmune akademiko bat dauka Markeskoa jauregian”

Ospakizun urtea izango da aurtengoa UEUrentzat, 50 urte betetzen baititu. Euskara eta unibertsitatea uztartzen ditu Udako Euskal Unibertsitateak: ikastaroak, graduondokoak, masterrak, aldizkari espezializatuak, jardunaldiak, mintegiak, testu-liburuak, on-line proiektuak... 2000. urtetik Eibarko Markeskoa Jauregian du UEUk bere ikastetxe akademiko nagusia, eta horrek ahalbidetu du, batetik, udako eskaintzatik urte osokora salto egitea, eta, bestetik, aurrez aurreko modalitateaz gain online eskaintza egituratu bat ere eskaini ahal izatea. Ane Sarasua Aranberri eibartarra UEUko Idazkari Nagusia da eta bere begien bitartez ezagutu nahi izan ditugu UEUk izan duen bilakaera, etorkizuneko erronkak eta 50. urteurrena ospatzeko antolatu dituzten jarduerak.

50 urte beteko ditu aurten UEUk, eta 22 urte daramatzazu Idazkari Nagusi moduan. Nola gogoratzen dituzu hasierako urte haiek?

Orain dela 25 urte lizentziatu berri nengoen eta lanpostu bila ari nintzen. UEUren iragarri bat ikusi nuen egunkarian. Proiektua nire nebaren bitartez zeharka ezagutzen nuen, besterik ez: Asier orduan biologia ikasten ari zen Leioan,

UEU oso aktibo zegoen natur zientzien sailean... Baina ni Deustotik nentorren, Zuzenbide ekonomikoa ikasi nuen. Han prestatzen zaituzte izaera merkantilista eta ikuspegi pribatua lantzerantz nolabait, eta lanpostuaren iragarkia euskaraz ikusteak animatu egin ninduen.

Eta zer aurkitu zenuen bertan? Proiektu erakargarri bat eta oraindik txikia zen lantalde bat

aurkitu nuen. UEU unibertsitatea eta euskara uztartzen hasi zen 1973an; 1997 hartan hazkuntza prozesu bat hastear zegoen, baina urte askoan bi lanposturekin zegoen UEU. Konturatu gabe iritsi nintzen UEUra, baina egia da segituan harrapatu ninduela. Ez nuen espero nire ibilbide profesional osoa han egitea: ekonomiko-ki proiektua ikuturik zegoen, babes instituzional bila zebi-

len baina oraindik egonkortze fase batean. Hala ere, udako ikastaroak oso potenteak ziren, eta baita jardunaldiak eta materialgintza ere.

2000. urtea mugarri izan zen UEUrentzat. Zer gertatu zen orduan?

Hiru urte neramatzan kontularitza eta finantziario atalean, eta ordura arte Idazkari Nagusia zen Mari Karmen Menikak

eta Xabier Isasi zuzendariak Idazkari Nagusi kargua proposatu zidaten. Apostu horrek kointziditu zuen Bilboko egoitza erosteko aukerarekin. Eta, bat-batean, Eibartik deitu ziguten Markeskoa proiektuz beteko ote genuen galdetzen. Eibarko Udalarekin lagatze-hizarmena lortu genuen. Aurrekontua bikoiztu genuen urte horretan, eta irudikatzen hasi ginen komunikazio arduradun bat behar zela plantillan, informatikari bat, kontularitzarako beste errefortzu bat, aholkulari pedagogiko bat, on-linerako saltoa, zuzentzaile bat argitaletxean... 2000. urtetik 2005era gaur egungo UEU denaren oinarri nagusiak jarri ziren lantaldeari dagokionez. Proiektua hor zegoen, baina bolumenari dagokionez hazi egin da, beti ere oinarriak ahaztu gabe.

50. urteurrena aukera egokia da, beraz, UEUren oinarriak gogoratzeko.

Bai, urteurrenean gauza asko ari gara gogoratzen. UEU 1973an jaio zen Ipar Euskal Herrian. Gure lantaldeak ez zuen hori bizi izan, baina oso presente izan dugu beti. Gauza batzuk plazaratzeko askoz ere toki aproposagoa zen iparraldea garai hartan. Askatasun gehiago zegoen politikaz, erlijioaz, kulturaz, euskaraz edo irakaskuntzaz hitz egi-

"Konturatu gabe iritsi nintzen UEUra, baina egia da segituan harrapatu ninduela"



"Markeskoak sekulako erakusleioa eman digu, gizarteari egiten duguna erakusteko espazio bat"

teko. Aduite asko joaten ziren hegoaldeetik euskaraz eta unibertsitateaz hitz egitera. Oinarrian goi mailako euskarazko irakaskuntza bultzatzea zegoen, testu-liburuak euskaraz argitaratzea, bilgune izatea; sarea edo komunitatea egitea... Lekukoa hartu dugunok hori handitu egin dugu

baliabide eta proiektuetan, baina oinarriak nahiko berdintsuak dira.

Asko aldatu da lan egiteko modua 50 urte hauetan?

Digitalizazioaren ikuspegitik gauzak asko aldatu dira. Eta lan egiteko modua asko aldatu egin da hazi egin garelako;

Eibarrera bi pertsona etorri ziren eta gaur egun 15 gaude. Proiektu arduradunak ditugu, baina gero kudeaketaz, komunikazioaz, informatikaz eta aholkularitza pedagogikoaz arduratzen diren lantaldeak ere badaude. Lau egoitza ezberdinetan gaude banatuta, Baionan, Iruñean eta Bilbon egoitza soziala eta administratiboak ditugu eta Eibarren ikastetxe nagusia, eta bertatik abiatzen dugu jardura akademiko nagusia, izan presentziala zein online.

2000. urtetik zaudete Markeskoa jauregian. Zer eman dio Eibarrek UEUri?

Azpiegiturak oso garrantzitsuak dira. Gu orduan alokairuan geunden Bilbon, Iruñean eta Baionan. Bat-batean lortu genuen gaur egun Bilboko egoitza soziala dena erostea, eta aldi berean Eibarko Udalaren deia jaso genuen. Bego Azpiri aipatu nahiko nuke, berari okurritu zitzaizolako. Markeskoa jauregia XVI. mendeko jauregia da, ondare moduan kalifikatuta dago eta 900 metro karratu ditu. Baina hutsik zegoen. Eibarko Udala proiektu baten bila zebilen, jauregia edukiz eta bizitzaz betetzeko. Guztiz eskertzekoa da UEUz gogoratu izana. Proiektua aurkeztu genion Udalari eta aurrera atera zen.

Pausu handia izan zen beraz...

Eskola-tailerrak zaharberritze lanak eginda zituen, baina dena hutsik zegoen. Apurka-apurka dena atontzen hasi ginen: gune administratiboa, areto nagusia, ekipamendu informatikoa, informatika gela, ikasgelak... Eta poliki-poliki jardueraz betetzen joan ginen, ilusioarekin baina baita bertigoarekin ere. Ordura arte alokairuan geunden eta gauzak antolatzeko beti eskean ibili behar ginen. Markeskoak sekulako erakusleioa eman digu, gizarteari egiten duguna erakusteko espazio bat. 2000. urtean pasa ginen batik-bat udako ikastaroak antolatzetik uda sasotik irteera,



hau da, urtean zehar gauzak antolatzen. Eta, Markeskoak berak ematen dituen aukerengatik, jarduera presentzial batetik onlinerako saltoa eman genuen. Hortaz, Markeskoa opari bat izan da.

Eta zertan egiten dio mesede UEUK Eibarri?

Hezkuntza alorrean goi mailako hirukote bat osatzen dugu Armeria Eskolak, UNI Eibar-Ermuak eta UEUK Eibar hiri unibertsitario bilakatze horretan. Gure jarduera Eibartik zabaltzen da, gure plantillaren %80 Eibarren dago, eta unibertsitate mailako etengabeko prestakuntza eskaintzen dugu. Eibarrek arnagune akademiko bat dauka: bizialdi osoko euskarazko prestakuntza egin nahi baduzu, hemen, Eibarren, aukera daukazu. Beraz, Eibarri hori eskaini nahi diogu. Gure ikasleen %20 eskualdetik dator. Eibartar moduan gustatuko litzaidake UEU ezagunagoa izatea, jendeak jakitea euskara eta unibertsitatea elkarrekin ditugula Eibartik, kriston eskaintza daukatela hemen formatzeko, eta posible dela hori euskaraz egitea.

Zuri zer eman dizu UEUK pertsonalki eta profesionalki?

UEUK daukan izaeragatik zaila da arlo profesionala eta pertsonala bereiztea. Bihotzera heltzen den proiektu horietako bat da. Ibilbide profesional bat egiteko aukera eman dit UEUK, hazi egin naiz eta hori aitortu eta eskertu behar diot UEUri. Ardura berriak hartzen joateko aukera eman didate eta hartzen jarraituko dut, eta eroso sentitzen naiz. Kudeaketa gustatzen zait, eta arlo horretan hainbat gai jorrazteko aukera daukat: alde batetik, zenbakiak asko gustatzen zaizkit; 1.300.000 euro kudeatzera iritsi gara, horrek ibilbide profesional batean esan nahi duenarekin. Bestetik, estrategia, egitasmoaren bideragarritasuna... gustatzen zaizkit horrelako erronkak. Eta ikasi dut zein garrantzitsua den

"Gure jarduera Eibartik zabaltzen da, 21 lanpostutik 15 Eibarren daude, eta unibertsitate mailako etengabeko prestakuntza eskaintzen dugu"



"Euskaraz lan egitea eta proiektu bat euskaratik bultzatea luxu handia da"

lantaldea proiektua aurrera ateratzeko. Ni emozionala naiz, baina UEU ere emozionala da, eta kudeaketa alorrean emozioei tartea eskaintzea ahalbidertatu dit UEUK. 21 pertsona daude nire ardurapean eta asko lantzen dugu alde hori. Denak gara garrantzitsuak. Pertsona ondo badago proiektuak nabaritu du. Gure izaera sozialagatik (irabazirik gabeko elkarteak) ere beste modu batean kudeatzen duzu. Bestetik, hezkuntzaren eta euskararen mundua oso politak dira. Hezkuntza asko gustatzen zait eta euskara dena da niretzat. Euskaraz lan egitea eta proiektu bat euskaratik bultzatea luxu bat da. Eskola izan da gainera, asko ikasi dut, oso jende interesgarria ezagutu dut, ezagutza partekatzen duzu. Beraz, pertsonalki eta profesionalki asko eman dit.

Zer antolatu duzue 50. urteurrenerako?

Pandemiagatik denok mentalki oso nekatuta gaude, eta honek

eman digu behar genuen indarra eta ilusioa. Udan egingo dugu ospakizun nagusia, udan sortu zelako orain dela 50 urte UEU, eta kriston ikastaro politak ari gara antolatzen. Hogei jardunaldi potente izango ditugu eta guretzat urte hauetan gai estrategikoak izan daitezkeenak plazaratu nahi ditugu ahal bada elkarlanean, Elhuyarrek eta Elkarrek ere euren 50. urteurrena ospatzen dutelako. Eibarren egongo gara, baina baita Bilbon, Iruñean, Baionan, Donostian eta Usurbilen ere. Urtarrilean topa birtual bat egin genuen. Apirilaren 10ean, Korrikaren amaieran, kilometroa hartu dugu Donostian. Eta Eibarren Korrika Kulturean ere parte hartuko dugu: martxoaren 30ean ekitaldi bat antolatu dugu Markeskoan; hainbat gonbidatu izango ditugu, batzuk eibartarrak, eta modu umoretsu eta informal batean arituko dira. Hiriburuetan ere ari gara ekitaldiak antolatzen. Eibarren festa moduko bat egingo dugu ekainaren 1ean.

Ekitaldi nagusia irailaren 21ean izango da, Bilboko Kafe Antzokian egin nahi dugu eta ekitaldi instituzionala izango da. Urteurrena ospatu eta gure proiektua ezagunagoa egin nahi dugu. Gure bazkideak aktibatu (1.200 inguru dira) eta belaunaldi berriak erakarri nahi ditugu.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Horren gaineko gogoeta egin dugu eta, gure txikitetasunetik, ondorioztatu dugu unibertsitatearen funtzio nagusia gizar-tearen premiei erantzutea dela. Etorkizunean unibertsitateak alturan erantzun behar izango du. Etorkizuneko erronkei bide emateko eragile izan nahi dugu. Hor egin nahi dugu eta bide emate horretan gure aletxoak eskaini. Eta euskara sustatzen jarraitu, jakina.

Martxoak 8 hor daukagu. Aurten berdintasun plana lantzen hasi zarete.

Gure izaeragatik genero-berdintasuna azpimarratzen dugu eta horren alde borrokatzen dugu. Nahiko ondo gabiltzala uste dut, baina beti dago non hobetu. Gure hartzaile profilaemakumezkoa da, gipuzkoarra, 35 urtekoa, lanean dabilena eta ikasketa unibertsitarioak dituen. Irakasleak aukeratzekoan ere erdia emakumezkoa da. Egitaraua aukeratzekoan beti dugu hizpide genero-berdintasuna. Berez ez gaude behartuta berdintasun plana egitera, baina pentsatu genuen egin behar genuela, ondo etorriko litzaikeela horrelako prozesu batean sartzea. Horretarako beharrezkoa da agente aholkulari bat eta guk Elhuyar aukeratu dugu. Beraiek gidatuko gaituzte, bederatzi hilabete iraungo du eta orain hasiko gara.

Elkarrizketaren bideoa ikusteko





Dorre altuenetik ere ezin dutena ikusi. FERNANDO SOLANA



Eguaztenean aurkeztu zuten Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren Inguruko egitaraua. EKHI BELAR



Ikasitako babesgabetasuna zer den galdetuta, zera erantzun digu Andretxeako arduradunak: “Gauzak aldatzeko gaitasuna dugula konturatzea esan nahi du kontzeptu horrek. Adibidez, emakume helduak

horrelako manifestua egiten, euren presentzia bermatzen eta indartzen ikusten dituzunean, zein da jasotzen duzun mezua? Gauzak aldatu ahal direla eta eraldaketarako subjektuak garaile”.

‘Heldu/leku feministak’ izango da aurten erabiliko duten goiburua, emakume zahar edo helduen figura aldarrikatzeko asmoz

Emakumeak eta kirola

Ekintzekin amaitzeko, hilaren 24an ‘Emakumea eta kirola: eta orain zer?’ izeneko mahai-ingurua egingo da Ipurua foball zelaiko prentsa aretoan. Ana Ramos kazetari eibartarrak gidatuko du saioa eta goi-mailako lau kirolarik hartuko dute parte: Irati Anda (eskalatzailea), Maialen Chorraut (piraguista), Oihana Azkorbebeitia (mendi korrikalaria) eta Patri Espinar (pilotaria).

Eibar KEren Fundazioak lehen aldiz hartu du parte

Martxoaren 8ko lan-taldean eta eskuzabalik hartu dute. Eibar KEko Arrate Fernandezek parte-hartzaileek erakutsi duten prestatutasuna goraiatu zuen egitarauaren aurkezpenean. “Hizlariak emakumeek kirol-jarduera profesionala uzten dutenean edo ama izatea erabakitzen dutenean ditzuten zailtasunen inguruan hitz egingo dute, besteak beste”, aipatu zuen.

Liburu feministen proposamena

Ekintza horiez gain, Juan San Martin Liburutegiak, Berdintasun sailak eta Andretxeak Martxoaren 8arekin eta emakumeekin lotutako irakurketa-gida bat prestatu dute. “Liburuen zerrenda luzea prestatu dugu. Aurten aukeratu dugun gaiarekin zerikusia duten liburuak nabarmendu ditugu, baina era askotako gaiak lantzen ditzuten formatu ezberdinetako lanak aurkitu ditzakegu bertan (poesia-liburuak, komikiak, eleberriak...)”, esan digu Fernandezek.

Liburuak liburutegian eta Andretxean eskuratu ahal izango dira, Andretxeak ere liburuen mailegu zerbitzua eskaintzen duelako.



Portaleko erakusketan bisita gidatuak eskaintzeaz gain, Aldazabalek 'Andre zaharren manifestua' liburua aurkeztuko du Mariluz Esteban autorearekin.

<<< AINHOA ALDAZABAL • Filologoa >>>

“XX. mendea mundu mailako danbada izan zen emakumeen eskubideei dagokienez”

Martxoan zehar zenbait ekintza egingo dira Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko. Horrela, atzo 'Berdintasunerako bide luzea. Euskadiko emakumea XX. mendean' erakusketa zabaldu zuten Portalean (hilaren 27ra arte egongo da zabalik), eta, horren harira, Ainhoa Aldazabalek bisita gidatuak eskainiko ditu herriko ikasle eta euskaltegiertzat. Gainera, helduentzako bi bisita ireki egingo dira: gaur 18:00etan eta 15ean 12:30ean. Izena emateko: andretxea@eibar.eus, 688 853 440 edo 943 543 938.

Zer ikusi dezakegu atzo Portalean zabaldu zen erakusketan?

Marijose Villaren ikerketa batean oinarritutako erakusketa da eta XX. mendean emakumeek eta emakumeen eskubideek eduki duten ibilbidea topatuko dugu bertan. Eskubideen hartzea nolakoa izan

den, momentu batzuetan eskubideek nola atzera egin zuten ikustea. Prozesu hori guztia kontatzen da.

Erakusketaren prestaketa- lanetan ibili zara?

Ez. Mario Onaindia Fundazioak sortutako erakusketa da eta Udalak ekarri egin du.

Lehenago beste herri batzuetan egon da eta erakusketa eginda etorri da, baina Eibar-ko elementuak sartu dira (el-karrizketak eta abar).

Zein zen XX. mende hasierako euskal emakumeen egoera?

Analisia egiterako orduan zaila da banaketa bat egitea, hau

da, sasoi bakoitza kutxa estankoko bat izango balitz bezala aztertzea. XIX. mendetik emakumeek aldarrikatzen zuten lehenengo gauza hezkuntza zen. Izan ere, unibertsitateko atea itxita zizuten. Hori lortu ondoren, sufragioa eskatu zuten eta politikan lanean hasi ziren, baina Gerra Zibi-

la iritsi zen eta atzerapausoak egon ziren. 60. eta 70. hamarkadetan, iraultza sexualarekin, eskubideak berreskuratzen joan ziren. XX. mendea mundu mailako danbada izan zen emakumeen eskubideei dagokionez, lehenengo eta azkeneko hamarkadak batez ere.

Zentzu horretan, nolakoak izan ziren XX. mendeko azken urteak?

Frankismoaren ostean AEBtik abiatu zen iraultza sexuala iritsi zen. Orduan, medikuntzari, sexualitateari eta beste zenbait arlori tokia egiten hasi ginen. Adibidez, abortuaren aldarrikapenak garrantzi handia izan zuen. Fokua beste toki batzuetan jarri zen eta borroka horiekin amaitu zen mendea.


Azken urteotan feminismoaren aldarrikapenek gero eta oihartzun gehiago izan dute. XX. mende amaierako borroka horiek jarraipena izan zuten seinale?

Historia beti dago lotuta eta, gainera, ez da lineala, ziklikoa da. Hau da, badoa eta badator. Portalekoa erakusketa historikoa da eta gaur egun ditugun eskubideetako asko gure aurretik zeuden emakumeek egindako borrokari esker ditugula pentsarazteko balio digu. Eta zentzu berean, guk egiten dugun lanari esker edo ez, etorkizuneko emakumeek ere eskubide batzuk izango dituzte edo ez. XXI. mendeko olatu feminista horrek aurreko mendeko emakumei zor die neurri baten.

Eibarko elementuak agertzen direla aipatu duzu. Nolako elementuak dira?

Emakumeek lan munduan izan zituzten elementuak, batez ere. Zerbait lokala da, baina, aldi berean, gauza berdina errepresentatuko luketen elementu batzuk aurkituko genituzke beste toki batzuetan. Interesgarria da, Eibarko historia berreskuratzeke saiakera egiten delako. Emakumeek garrantzi handia izan zuten,

“Ditugun eskubideetako asko gure aurretik zeuden emakumeek egindako borrokari esker ditugula pentsarazteko balio digu erakusketak”



“Emakume izatea ia ikusezina izatea bada, emakume zaharra izatea are ikusezinagoa”

bai politikan, bai lanerako sarbidean, eta baita industriaren garapenean ere, besteak beste.

Nolakoak izango dira bisita gidatuak?

Marijose Villaren liburuetan oinarrituta egongo dira, baina historiak kontatzen dituen momentu epikoen artean geratzen diren hutsuneak gure egunerokotasuneko emakume eta erreferentziekin betetzen saiatuko naiz. Denok ditugu hutsune horietan lan handia egiten zuten amamak eta birra-

mamak. Hori berreskuratu nahiko genuke.

Erakusketan bisita gidatuak eskaintzez gain, 'Andrezaharraren manifestua' liburuaren aurkezpena eta solasaldia egingo duzu 23an Mariluz Estebanekin. Nolako saioa izango da?

Izenburuak dioen bezala, 'andrezaharra' kontzeptuaren inguruko liburua da. Mariluz Esteban antropologo eta feministak bere adinaren inguruko kezka zeukan: “Emakumea

naiz, baina emakume zaharra naiz dagoeneko”. Hain zuzen ere kontzeptu hori jarri nahi izan du erdigunean. Emakume izatea ia ikusezina izatea bada, emakume zaharra izatea are ikusezinagoa. Liburua bi zatitan banatzen da: poemak eta manifestua.

Liburuak 'Andrezaharraren' kontzeptuak dituen estigmatikari apurtu nahi du?

Bai. Autoreari entzun diodanaren arabera, jende zaharrak berba bera ukatu egiten du, estigmatiz beteta dagoelako eta zerbait negatiboa izango balitz bezala ulertzen duelako. Orduan, autoreak berba hori hartu eta bere burua horrela izendatzen du. Estigma hori apurtzeko desira eta interpe-latzeko eta boteretzeko gogoia dago.

Nolako solasaldia egingo duzue?

Liburua aurkeztu ondoren, bertan lantzen den gaia guregan ekarri nahiko genuke. Poema batzuk irakurriko ditugu eta sortze-prozesua nolakoa izan den jakingo dugu Mariluzen eskutik. Atsegin eta dibertigarria izaten saiatuko gara.

Literaturak nolako aukerak ematen dizkio mugimendu feministari?

Bi norabidetako kontua dela uste dut. Batetik, feminismoak literaturan eragina du. Hau da, gaien ausardian eta gaiak planteatzeko orduan. Eta, bestetik, literaturak feminismoan eragiten du, irakurtzen dugunak eragiten digulako. Beraz, lotuta doaz. Literaturak gaitasun asko ditu. Adibidez, kalean gertatzen den hori finkatu edo teorizatu dezake.

Elkarrizketaren bideoa ikusteko



Primerako bideoak aurkeztu dituzte herriko gaztetxoek



AMETS FABRIKATZAILEAK



BOST TANTA



BOST GARA

PLAY-BACK LEHIAKETA 2022



DANTZARIAK



ESTILOAK




HAPPY GIRLS



HIUMAN



JELI



JUTI



KOLOREAK



LAGUNAK



PILAZOAK



PIJAMA



NESKA KUADRILA



ROCKERAK



STICHAK



SURFISTAK



TALENT

Gure herriko gaztetxoei umorerik ez zaie falta! 19 taldek parte hartu dute eta benetan goraiatzekoa da erakutsi duten maila, gogoia eta poztasuna!

Epaimahaiarentzat izugarri zaila izan da erabakia hartzea, baina hauek dira irabazleak:

Bideoa ikusteko



TXINTXIN



MOZORRO KATEGORIAKO IRABAZLEAK:
June Larreategi, Jone Gerrikagoitia, Malen Anderrez eta Maddalen Arrazola



KOREOGRAFIA KATEGORIAKO IRABAZLEAK:
Lorea Ugarte, June Mata, Intza Salaberria, Elene Astigarraga, Itsaso Eraso. Taldekide bat falta zen (Leire Larrañaga).



INTERPRETAZIO KATEGORIAKO IRABAZLEAK:
Haizea Muruamendaraz, Noa Agirre, June Amuategi, Nora Ortueta, Ane Urkola (grabazioa egin zuena), Maule Bernedo eta Ane Arritokieta.

<<< GORKA GARATE • Grabatzailea >>>

“Gero eta grabatzaile gutxiago dago eta herriko ondarea galtzen ari da”

Martxoaren amaieran damaskinatu- eta grabatu-tailerra hasiko da. Eibartar talde batek bultzatu duen ekimen honek Eusebio eta Placido Zuloagak diseinatutako artea berreskuratzeko asmoa dauka. Izena emateko telefono zenbaki honetara deitu daiteke: 622225716 (Gorka Garate).

EKHI BELAR

Nola sartu zinen grabatuaren munduan?


Aitaren familiatik dator kit kontu hau. Aita grabatzailea da, oso ona gainera, eta bizitza guztia eman du horretan. Berarekin hasi nintzen laguntzailer moduan, orduan esaten zen moduan, “botijua eramaten”. Beno, sasoi hartan dagoeneko ez zegoen botijorik eta kristalak garbitzen nituen. Handik bi urtera hasi nintzen grabatua egiten.

Zelan moldatzen zinen?

Ondo. Hasieran topeak eta zenbakiak egiten nituen pantografoarekin, eta gero burila hartu nuen gauza serioagoak egiteko.

Nolako tresnak behar dira grabatuak egiteko?

Gaur egun dena ordenagailuz egiten da. Nik bi aro bizi izan ditut. Gaztetan aitarekin ibili nintzen eta, ondoren, orain dela sei urte berriz hasi eta lau urtez ibili nintzen. Azken sasoi honetan ordenagailuz egiten genituen gauzak. Marrazkia ordenagailuan sartzen genuen eta, programa baten bitartez, makinak egiten zuen lana. Aurreko sasoiari, lan-prozesua bestelakoa zen. Metalezko plantilla bat erabiltzen genuen eta burilarekin marrazkiak egiten genituen bertan, eskuz. Horretarako, lehenik marrazkia paperean marrazten genuen, olioarekin papera bustitzen genuen



gardenagoa izan zedin eta burilarekin, kolpeka, plantillan marrazten genuen.

Horrelako lanak ordenagailuz egiteak ez dio xarma kentzen lanari?

Gai horren inguruan demaseko eztabaida dago, eskopetarien artean batez ere. Lehen, eskopeta merkeetan marrazkiak roldanaren laguntzarekin egiten ziren. Teknika horren bitartez eskopetan gida moduko bat markatzen zen eta, hortik abiatuta, grabatua egiten zen. Gaur egun, roldana jarri beharrean, laserra erabiltzen da lehenik eta, gero, eskuz amaitu. Eibarren ez da eskopeta merke askorik egiten, kalitatezkoak baizik. Orduan, esku hutsezko marrazketarekin egiten dituzte eskopetak: kulata marraztu eta, gero, burilarekin jarraitu. Beraz, batzuk laserraren erabileraren alde daude, gero eskuz amaitzeko; eta beste batzuek esaten dute hori tranpa dela eta produktuak galdu egiten duela.

Aitaren tailerrean horrelako lanak egiten zenituzten?

Aitak horrelako lanen bat egin izan du, baina industriarako gaiak landu ditugu batez ere. Adibidez, pinak funditzen zituzten Eibarko enpresentzako lanak egiten genituen.

Eta Eibartik kanpoko enpresentzat lanak egin dituzue?

Bai. Esloveniara, Frantziara, Belgikara... zenbait lan bidali ditugu. 80. eta 90. hamarkadaz ari naiz, sasoi hartan pinek demaseko arrakasta zutelako. Orduan, grabatzaile askok landu zuten arlo hori eta sortu ziren enpresa guztiak horren ondorioz sortu ziren. Gaur egun pinak egiten dituzten bi enpresa besterik ez dira gelditzen Eibarren, baina lehen sei edo zazpi enpresa egongo ziren. Grabatzaile asko zegoen Eibarren. Batzuek guk egiten genituen gauzen antzekoak egiten zituzten eta beste batzuk eskopetetan zentratzen ziren.



“Urte eta erdian damaskinatua egiten ikasi daiteke, baina kalitateko zerbait egiteko urte asko behar dira”

Grabatuari dagokionez, eskopeten kontua ezberdina da?

Beste estilo bat da. Gu artistikoak gara zentzu batean, baina gauza erabilgarriagoak egiten genituen, modu baten esaterren: giltzatakoak, erliebe txikiak, txanponak... Adibidez, Espainiako infanta ezkondu zenean, *Hola* aldizkariak txanpon berezi batzuk atera zituen, aitak egindakoak. Bera Paulino Larrañagarekin eta Alberto Vidartekin hasi zen, baina gero Vidartek laga egin zuen eta Larrañagarekin pasa zuen bizitza osoa.

Zergatik daude gaur egun hain grabatzaile gutxi?

Industriaren arloan makina eta teknologia berriak sortu direlako. Guk erliebeekin ateratzen genuen dirua, baina gaur egun 3D makinak horrelako gauza egiteko gai dira. Sasoi batean, 80. hamarkadan, grabatzaile eta damaskinatzaile eskola egon zen Eibarren. Hasieran sindikalean eta gero

“Klaseak martitzenetan izango dira, 17:00etatik 21:00etara, Armeria Eskolan”

Armeria Eskolan. Lucas Alberdi zen arduraduna eta, gero, Mariasun Nogues eta Maria Jesus Portillo ibili ziren. Ondoren, krisiaren ondorioz, eskopeta enpresa askok itxi egin zuten eta, ez zenez hainbeste grabatzaile behar, eskola laga egin zen. Kontua da gaur egun grabatzaile gehienak jubilatzeke zorian daudela.

Beraz, grabatzaileen beharra ikusi duzelako jarri duzue ikastaroa martxan?

Eibarko lagun talde bat nirekin harremanetan jarri zen grabatuaren inguruko kontuak sustatzeko. Gero eta grabatzaile gutxiago dago eta gure herriko ondarea galtzen ari dela ikusi zuten. Gainera, grabatzaileentzako eta damaskinatzaileentzako lana badago, horrela esan digute eskopetak egiten dituzten enpresek. Adibidez, enpresa batzuek kanpora jo dute jende bila eta beste batzuk ez dira jubilatuta erreleborik ez

dutelako. Erreleborik ez badago, hemendik gutxira pare bat enpresek atek itxi beharko dituzte. Beraz, enpresek interes handia erakutsi dute ikastaro honen inguruan. Horregatik gustatuko litzaiguke ikastaroan jende gazteak izena ematea. Izan ere, urte eta erdian damaskinatua egiten ikasi daiteke, baina kalitateko zerbait egiteko urte asko behar dira, eta grabatuaren kasuan are denbora gehiago.

Nork emango du ikastaroa?

Ion Garciak emango du eta ni laguntzen ibiliko naiz. Garcia eibartarra da eta Angel Ledorekin tailerra zuen, baina itxi ondoren Iparraldera joan zen lanera. Han eskulturak egiten ditu egurrean, damaskinatua, grabatua... Askok balio duen pertsona da eta bera izango da ikastaroko irakaslea. Bestalde, beste grabatzaile zahar batzuekin harremanetan jarri gara egunen baten klaseetara etorri daitezela, euren ezagutza euren ahotik jasotzea garrantzitsua izan daitekeelako.

Klaseak noiz izango dira?

Martitzenetan, 17:00etatik 21:00etara, Armeria Eskolan. Gainera, Armeria Eskolakoei giltza eskatuko diegu, ikasleek nahi dutenean gela erabili dezaten. Ikastaroak denboran jarraitzea da gure asmoa, denbora behar delako ofizio hauek ikasteko, baina momentuz urtebeterako aurrekontua dugu. Bestetik, matrikularen prezioa nahiko sinbolikoa izango da. Zentzu horretan, eskerrak eman nahi dizkiet Eibarko Udalari, Armeria Eskolari, Azitaingo Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuari eta proiektu honetan parte hartu duten guztiei. Gainera, Eibarko Museok erremintak lagako dizkigu: bolak, burilak... Dena dela, jendearekin harremanetan jarri gara bola gehiago lortzeko, seguru aski jendeak etxean bolak apaingarri moduan, ganbaran edo beste erabilerarik eman gabe izango ditu-eta.

Iruki taldeko Yago Agirrek irabazi zuen 44. Udaberri Saria

>>> Junior mailako Udaberri Sariaren 44. edizioa irabazteaz gain, Agirrek mendiko saria ere bereganatu zuen eta bere taldeak, Iruki-Donostialdea Bizikletan-ek, taldekako sailkapena. Yago Agirre ihes eginda helmugaratu zen, podiuma osatu zuten Beñat Garaiar (Augar-Laguntasuna) eta Aimar Galdos-i (Café Dromedario-Flotanet) 36 segundoko tarte aterata. Hirugarren sailkatutako ermuarra izan zen, gainera, Debarreneko onena. Irabazleak 39,633 kilometro orduko batzabestekoa egin zuen eta 78 kilometroak osatzeko 1:58:05eko denbora behar izan zuen. 119 txirrindulari abiaturik ziren proba egiteko (tartea hiru emakumezko) eta Toribio Etxebarriako helmugara 85 iritsi ziren.



Domeka goizeko lasterketaren antolatzaileek probaren hasiera aldatu behar izan zutela Calbeton kaletik Julian Etxeberriara, "aratosteetako jaien ondorioz, kalean zegoen apurtutako beira zati kopuruarengatik. Mankomunitatekoek

guztia garbitzen ahalegindu baziren ere, ezinezkoa zela ikusita, gurpilak zultzeko zegoen arriskuak irteera anbulatorio aurretik egitera eraman gintuen" diote Eibarko Txirrindulari Elkarteok. Lasterketan ez zen bestelako inolako ara-

zorik izan eta antolatzaileek babesleek eta boluntarioek eskainitako laguntza eskertu dute. Azkenik, Txirrindulari Elkarteak eta Neinor eraikin enpresak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute aurtengo denboraldirako.



Iñigo Egidazu bosgarren Europako txapelketan

>>> Klub Deportiboko atletak, 9'27ko markarekin, bosgarren postuan amaitu zuen 60 metro hesietako proba Bragan jokatu-tako txapelketan. Hain urrutira joan gabe, Donostian jokatu-tako 16, 18 eta 20 urte azpiko mailetako Euskadiko Pista Estaliko txapelketan gure herriko ordezkariak ez ziren makal ibili. Urko Martinezek txapela jantzi zuen 18 urtetik beherakoen altuera jautsian (txartela eskuratu du datorren astean

jokatuko den Espainiako txapelketarako), eta proba berean Eneko Larrea bigarren izan zen 20 urtetik azpikoetan. Kepa Marquezek ere maila bikaina erakutsi zuen, brontzezkoalortuz 60 eta 200 metroko lasterketetan, 60ko hesietan eta pisu jaurtiketan. Han izan ziren Ugaitz Gartzia (1.000 metro), Manex Sarasua (luzera jautsiaz), Alaitz Sanz (1.000 eta 60 metro), Elene Arrazola, Silvia Marquez eta Enara Gabiola ere.

Hilaren 1ean eta 2an Imanol Egidazu Madrilan izan da Espainiako selekzioarekin 18 urte azpiko proba konbinatu eta Iberiar Txapelketan eta asteburuan, Urko Martinezekin batera, Valentzian jokatuko den pista estaliko txapelketan ere izango da. Ugaitz Gartzia, bestalde, Euskadiko selekzioarekin hartuko du parte Getafen jokatuko den 16 urte azpiko Espainiako kross txapelketan. Euren onena eman dezatela!

Bittor Astigarraga bigarren izan zen Aretxabaletako bolatokiaren inaugurazioan

>>> Asola Berriko bolariak hiru-txirlo tiraldi bikaina egin zuen aurreko zapatuan Aretxabaletan jokatutako "Aratusteko Bola Jaurtiketan" eta Bigarren postuan sailkatu zen, Soralezeko Jose Antonio Nuñez txapelkunaren atzetik;

azken hau izan zen bakarrei sei txirlo botatzen. Eibartarrari Jesus Mari Gorosabelek (Udala), Ekaitz Oñatek (Aretxabaleta) eta Jabier Osorok (San Miguel) jarraitu zioten. Hainbat herri-tako bolatokitako ordezkariak izan ziren txapelketan.



Asola Berriko bolaria bigarren postuari zegokion saria jasotzen.

Eibarko Duatloia 29. edizioa jokatu da bihar arratsaldean

>>> Arratsaldeko 16:45ean abiatu da aurtengo edizioa eta, betiko lez, hiru zatitan banatuta egongo da. Bost kilometro lehenengoa antxintxiketan osatuko dute, jarraian bizikleta gainean 18 kilometro tarteari ekiteko, amaitu aurretik beste bi kilometro eta erdiko bidea egiteko antxintxiketan. Eibar Triatloi Taldeko antolatzaileek ziurtatu digutenez, "bertan euskal duatloiar onenen presentzia izango da".

Aurreko asteburuan jokatutako Mungiako esprint duatloian, bestalde, Jaz Triatloi Taldeak bi ordezkari izan zituen. Iker Goikoetxearentzat bere lehen duatloia izan zen eta, lasterketa bikaina eginez, 19. postuan (0:56:57) amaitu zuen. Ia bi minutu eta erdira helmugaratu zen Roberto Gartzia, 39. postuan (0:59:24), eta bere mailako onena izan zen; hainbat probatan lortu du podiuma.



Gartzia eta Goikoetxeak Mungian hartu zuten parte.

Mikel Sarasolaren "Islandiako ur-jauzietan barrena" dokumentala Deporreko Mendi Jardunaldietan

>>> Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatutako Mendi Jardunaldietako edizio berri honetako bigarren ekitaldiak Portaleko areto nagusian izango du hitzordua datorren asteko egunean, hilaren 10ean. Egun horretan, 19:00etan hasita, Mikel Sarasolaren "Islandiako ur-jauzietan barrena" dokumentala

la proiektatuko da. Egileak joan den udan Islandiako uretan filmaturiko "Jötunn" pelikula ekarriko digu: "Hiru lagun Islandiako paraje ikusgarrietan galtzen dira, inguru horrek gordetzen dituen ibai berriak esploratzeko ilusioarekin. Dena ez da espero bezala aterako, baina hori da esplorazioaren esentzia". Sarasola



kayakista eta zinegileak bere lana aurkeztuko du Portaleko areto nagusian eta amaieran

solasaldia izango da; aukera polita, beraz, berarekin zuzenean hitz egiteko.

Paula Calvo igerilariak hirutik hiru proba irabazi zituen Euskal Herriko haurren txapelketan

>>> Tolosako Usabal kiroldegian jokatutako Euskal Herriko haurren txapelketan, Eibar Igerixan-eko ordezkariak hiru probatan hartu zuen parte eta hiruretan nagusitu zen. 13 urteko igerilaria lehenengoa izan zen libre erako 400 metroan eta postu bera eskuratu zuen 100 metroko libre eta bizkar estilokoetan, egindako progresioaren erakusgarri. Iker Calvo bere anaiak parte hartzeko txartela bazuen ere, oraingoan ezin izan zuen parte hartu belarriko arazoekin dabilelako.



Errugbiz betetako asteburua izango dute Unbeko instalazioek

>>> Errugbiko zaletuak ezingo dira kexatu asteburu honetan, Unben lau partidu jokatuko baitira: bi zapatuan eta beste bi domekan. Bihartik hasita, Euskal Ligan jokatzen duen gizonezkoen bigarren taldeak La Unica hartuko du 15:00etan eta, jarraian, 17:30ean, Ohorezko B Mailako lehen taldeak Bera Bera izango du aurkari. Etzi goizean, 10:30ean, 10 eta 12 urtekoen kontzentrazioa izango da eta arratsaldean, 15:00etan hasita, Ohorezko Mailako emakumezkoen taldeak Sant Cugat hartuko du, eibartarrak faborito direla.

Eskubaloian, Arrate Eibar Eskubaloiko bi talde nagusiek zapatuan, ordu berean hasita (18:30), jokatuko dituzte euren partiduak: emakumezkoen taldeak Urdaibai jasoko du Ipuruan eta gizonezkoenak Jacar San Antonioren kantxa bisitatuko du. **Foballean**, emakumezkoen lehen taldeak atsedean hartuko du eta 2. mailako gizonezkoenak Cartagenari egingo dio bisita, etzi 18:15ean hasiko den partiduan. Azkenik, **saskibaloian**, Eibar Avia Saskibaloiak Astigarragako Mundarro hartuko du bihar Ipurua kiroldegian 18:15ean.



Eibarko 45. Antzerki JARDUNALDIAK

Egitarau osoa
deskargatzeko



martxoak 4 (barixakua)



“LA VERDADERA HISTORIA DE LA MUERTE DE FRANCISCO FRANCO”

Max Aub-en TRAGIKOMEDIA
Coliseoan, 19:00etan / 80 minutu
Spectare (Madril)

Antzezlea: Alfonso Torregrosa
Zuzendaria: Laura Ortega

Max Aub-en ipuin honek espainol erbesterratu astunekin gogaituta dagoen zerbitzari mexikar bat aurkezten digu, egun osoan gerrarekin txapa besterik ez diotelako ematen. Horrekin amaitzeko, Franco hiltzeko asmoz Espainiara bidaiatzea beste irtenbiderik ez du izango, bere kafe zaharraren lasaitasun atsegina berreskuratzeko. Alfonso Torregrosak maisutasunez antzezten du Ignacio Garcia zerbitzaria. Max Aub-en umorearen froga ugarietako bat.

martxoak 5 (zapatua)



“ZINTZILIK”

Quico Pugès-en MUSIKALA
Coliseoan, 17:00etan / 60 minutu
Zintzilik Teatroa (Gipuzkoa)

Antzezleak: Irati Bilbao, Nagore Sanz, Quico Pugès, Domentx Uzin
Zuzendaria: Quico Pugès

Lan hau familia guztiari gozatzeko zuzentzen zaion gonbitea da. Bere baitan musika, pedagogia eta performancea uztartzen dituen disziplina anitzeko egitasmo baten tankeraz, jazz musikara gure zentzu oroz hurbiltzeko aukera ematen digu. Estreina-ko aldiz ukitu, dastatu, dantzatu eta sentituko bagenu bezala, soinu nahasketa bitxi, dibertigarri, dantzarri eta goxo honetaz

inoiz hitzegin ez baligute bezala. Marrazki bizidun, bideo-joko eta filma famatuetatik hartutako doinu ezagunetan oinarritzen da eta haien artean antzerki pasarte modura testu ezberdinek entzulea jazz-aren erritmo, armonia, melodia eta instrumentuen sekretuetan eta historia harrigarrian murgiltzen dute. Hori guztia era ludiko batean aurkeztua dator, ikuslegoa etengabe partehartzera gonbidatuz, bai dantza eginenez, abestuz edo besterik gabe bere burua emanez eta aurriritzi guztiak atzean utziaz. Quico Pugès eibartarra dugu autore, konposatzaile, interprete eta obraren zuzendaria. Berarekin, esperientzia handiko taldea dugu, era guztietako talentu eta disziplinak bateratuz geu gozatu, amets, farre eta dantza arazteko prest beti, jazz-a pittin bat gehiago maitatzera ikasten dugun bitartean.



martxoak 6 (domeka)



“LOF LADIES ON FIGHT”

Eva Guerreroren DANTZA
Coliseoan, 19:00etan / 60 minutu
Doos kolektboa & Eva Guerrero (Bizkaia)

Antzezleak: Garazi Lopez de Armentia, Estibaliz Villa, Leire Otamendi, Begoña Krego, Helena Wilhelmsson
Sortzailea: Eva Guerrero

Eva Guerrerok 80ko hamarkadaren amaierako “Gorgeous Ladies of Wrestling” izeneko telebistako saioan oinarritutako dantza tragikomikoko ikuskizuna dakarkigu. Artetik bizitzeak egunero dakarren borrokari buruzko gogoeta eginaraziko digu, show businessaren arinkeriak ezkututzen duen errealitate tristea erakutsiz. Ring batean lau emakumek borroka libreko liga nazionalako titulua jokatuko dute, bi biren aurkako itxurazko lehian.

martxoak 7 (astelehena)

“AMA”

Jokin Oregiren TRAGIKOMEDIA
Coliseoan, 19:00etan / 75 minutu
Marie de Jongh Teatroa (Bizkaia)

Antzezleak: Ana Martinez, Javier Renobales, Jokin Oregi, Anduriña Zurutuza, Amets Ibarra, Maiatane Sarralde, Joseba Uribarri

Zuzendaria: Jokin Oregi

Eibarko publikoarentzat dagoeneko ezaguna den taldeak (aurretik “Ikimilikiliklik” edo “Izar” lanak aurkeztu dituzte Jardunaldietan) oraingoan bere azken ikuskizunarekin dator. Aurreko lanekiko aldaketa nabarmena markatzen du, bai mezuan, bai esateko moduan, hamabi urtetik gorako helduei zuzendutako ikuskizuna. Elkar zaintzearen, gure bizitzaren zati bat beraiekin eramanez apurka-apurka hiltzen ari diren gure aita-ama zaharrak zaintzearen edertasun epikoari egindako kantua da.

Bere zigilu propioarekin eta edonork uler dezakeen hizkuntza unibertsalarekin, ikusleen bihotzera zuzentzen da Jokin Oregiren taldea, emozionatzeko sortutako beste istorio baten bidez.



martxoak 9 (eguztena)

“TARARA”

Josi Alvaradoren TRAGIKOMEDIA
Coliseoan, 19:00etan / 80 minutu
Hika Teatroa (Gipuzkoa)

Antzezleak: Tania Fornieles, Kepa Errasti, Jurdana Otxoa, Eneritz Artetxe, Iñar Sastre, Jose Cruz Gurrutxaga, Adrian Garcia de los Ojos

Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga

Sentsibiltate eta dotorezia handiko testua da Josi Alvaradoren, idatzita dagoena baino gehiago adierazteko gai dena, emozioa darien isiluneen bidez musika transmititzeko gai dena. Testuak thriller bokazioa du, eta poesiaren dardarak astintzen du. Obra inoiz kontatu ez den hainbat haurren istorioa da, haragiaren barrenako bidaia inizatiko, mendekotasun sortzailea. Barkamenari buruzko ipuina da, diferentziaren gorapamena, non Txanogorritxuk azkenean biolina joko dien otsoei.

Agurtzane Intxaurreaga antzerkigileak zuzendutako lan honetarako Hika Teatroak euskal aktore talde garrantzitsua bildu du Josi Alvarado Alacanteko egilearen testua agertokietara eramateko.



Idoia abeslariak “Ilun eta abar” lana aurkeztuko du hilaren 10ean Korrika Kulturalaren barruan

Idoia Asurmendi Aramaioko abeslari gazteak 2021ean grabatu zuen bere lehenengo diskoa aurkeztuko du Coliseoan datorren asteko eguenean, martxoak 11, Coliseoan 20:00etan hasiko den emanaldian. 21 urteko abeslari, pianista, gitarra eta konpositoreak ondo aprobetxatu du pandemia sasoa eta azken urtean Jazzaldian, Chillida Leku Museoan, Donostia Festibalean eta beste hainbat kontzertu ezagunetan hartu izan du parte.

Ohiko bideetatik kanpokoak izan da Idoiak orain arte egin dakoa. Bere lehen diskoa atera aurretik, oraindik abestirik argitaratu gabe, sare sozialetan zabaldutako beste musikari batzuen bertsioak bere aurkezpen txartel bilakatuta, oihartzun zabala izatea lortu zuen.

Musikarekiko zaletasuna familiaratik datorkio eta oso gaztetatik hasi zen musika-instrumentuekin esperimentatzen. Abesbatza ezberdinetan ere aritu izan da eta, piano ikasketak egiteaz gain, Musikenen pedagogiako espezialitatea lantzen dihardu Musika arloan. Oso gazterik hasi zen kontzertuak eskaintzen bakarlarri gisa: lehenengo euskal abestien zein kanpoko pop-rock eta soul estiloko abestien bertsioekin eta, ondoren, berak konposatutako

lanekin eta, hainbatetan, Maria Osés-en poesiak baliatuz.

Sare sozialetan egin zen ezagun 2019an, Berri Txarrak taldearen "Katedral bat" kantua bertsioarekin eta, Kutxa Kultur beka irabazita-koan, "Ilun eta abar" bere lehen proiektuarekin hasi zen. Hor poesia, ilustrazioa edota animazioa bezalako arte ezberdinak fusionatu ditu, berak pianoa eta ahotsa jarriz musika talde batek lagunduta.

Aurrekotik irten da Eibarren aurkeztuko duen bere lehen albuma, euskarazko eta gaztelaniazko estilo ugariko zortzi abestik osatutakoa. Zortzi gaitako bakoitza ezberdina da: "Mundo al revés" bossa nova bat da -bere ahizoekin batera abestua-, "Lo kanta" nana bat da, "Hitzetan" abestian ameri-

kar folkera hurbilduko da, eta "Aulki jokoa" bere lehen singlean britainiar popera, beste garai batera garamatzen "Viejo refranero" ahaztu barik. Berak dioenez, "sonoritate ezberdinak nahi nituen, baina uste dut diskoak baduela logika bat".

2020ko udan hogeitabat kontzertu eskaini zituen Euskal Herriko hainbat tokitan, Eñaut Elorrieta eta Olatz Salvador bezalako artistekin kolaboratu izan du eta Fernando Velazquezek Euskadiko orkestrarekin moldatutako abesti bat grabatu du. Eta iaz Olatz Salvadorren "Aho uhal" diskoan hartu zuen parte "Gelditu hor" kantuan, bideoklip berria ateratzeaz gain, kasu horretan Eñaut Elorrietaekin batera abestutako "25. artikulua" kantua erekin.



“Hautsi da Anphora” ikuskizuna hartuko du Coliseo antzokiak, Korrika Kulturalaren eskutik

22. Korrika Kulturalaren baitan, nazio mailako emanaldi nagusia izango den “Hautsi da Anphora” Eibarren ikusteko aukera izango dugu martxoaren 20an, 20:00etan Coliseo antzokian. Aurreko Korrika Kulturalan aurkezturiko “Kalaportu” bezala, Loraldiak jaialdiarekin elkarlanean antolatutako ikuskizuna da eta izen bereko diskoa du oinarri. Ruper Ordorika eta Mugalaris taldearen

parte hartzeaz gain, Bernardo Atxagak ere esku hartuko du, “garai hartako poemei gaurko begirada literarioa” emateko. Nahi izanez gero, sarrerak eskuratzeko aukera dago jada, 15 eurotan (10,50 eurotan Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoko leihatilan bertan eros daitezke, astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era edo, bestela, Interneten, Kutxabank zerbitzuaren bitartez.





Ernest Hemingwayren atzera begirako erakusketa zabaldu dute Armagintzaren Museoan

“Hemingway & Euskal Herria” izenburuko erakusketa zabaldu zuten atzo arratsaldean Eibar-ko Armagintzaren Museoan. Gernikako Euskal Herriko Museoak antolatutako erakusketa hau Bizkaiko Foru Aldundia-
ren “Ibiltari” erakusketa ibiltarien programaren parte da: “Ernest Hemingwayren atzera begirako bat, objektu, argazki,

ikus-entzunezko, idazki eta bixikerien bidez. Bertan, Nobel saridunak ia 40 urtean zehar Euskal Herriko kulturarekin eta jendearekin izan zuen lotura sendoaren eta zabalaren testigantza ematen da”. Gainera idazleak gure hiriarekin eta Eibarko industriarekin izan zuen harremanari buruzko edukiak ere bildu dituzte.



Unai San Martinen heliograbatuak ikus daitezke Kutxa Kultur Artegunean

Atzoz geroztik bisitatu daitezke Unai San Martinen (Eibar, 1964) “Nostos” erakusketa Donostiko Kutxa Kultur Artegunean. Bertan heliograbatuaren teknikarekin egindako lanak erakutsiko ditu: “Gure garaiotan, irudien eta soinuen erritmo frenetikoak leku gutxi uzten digu inguruneari begi-

ra gozatzeko; Unai, aldiz, 105 heliograbatuaren bitartez, naturara itzultzeko modua eskaintzen digu, gure jatorrizko etxera itzultzeko –nostos, grezieraz–, adi eta hausnarkor; hautematea mantsotzeko era bat da”. Ekainaren 19ra arte ikus daitezke, martitzenetik domekara (12:00-14:00 eta 16:00-20:00).



Mezu ezkutuak lehiaketa abian

“Mezu ezkutuak” lehiaketa antolatu du Udalak, Udal Euskaltegiarekin eta AEK euskaltegiarekin lankidetzan. Parte hartzea irekia da eta, horretarako, “barregarria, beldurgarria, errebindikatzaila izan daitekeen mezu laburra idatzi behar da, gehienez ere pare bat lerrokoa (25 hitz inguru), eta bokal guztiak kendu behar zaizkio”.

Mezua (osorik idatzita eta bokalak kenduta) e-posta bidez bidali behar da helbide hauetako batera: euskara@eibar.eus, euskaltegia@eibar.eus edo eibar@aek.eus. Antolatzaileek iragarri dutenez, lehiaketak bigarren parte ere izango du, “eta bigarren parte horretan hala nahi duten herritarrek mezu ezkutuak deszifratzen ahalegindu beharko dira”. Mezu ezkutuak aurkezteko azken eguna martxoaren 20a izango da. Lehiaketan parte hartzeko jarraibideak eta gainerako informazioa www.eibar.eus webgunean daude eskuragarri.

Koldo Zuazok hitzaldia emango du egunean, Ikasten-en eskutik

Ikasten elkarteak antolatuta, Koldo Zuazok hizkuntzalariak euskara eta euskalkiei buruzko hitzaldia emango du Armeria Eskolan, datorren egunean, 10:00etatik 12:00etara. Hizkuntzalari eta idazle eibartarra euskaltzain urgazlea ere bada eta, batez ere, euskalkiak ikertzen nabarmendu da. Betiko moduan, interesa duen edonork dauka hitzaldira joateko aukera eta sarrera doakoa



Idazlearekin Harixa Emoten

Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa taldekoekin aritu zen Amaia Telleria martitzenean, otsaileko saioan. Antxon Narbaizaren laguntzarekin, “Haize-lekuak” eleberritari buruz berbetan gustura jardun zuten irakurleek. Hurrengo saioa Aste Santu ostean, apirilaren 26an izango da: Bertol Arrietaren “Gezurra berdadera” aztertuko dute.



LUIS M^a MATANZAS SETIEN

2022ko otsailaren 21ean hil zen

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



JESUS M^a ARIZNABARRETA LARRAÑAGA

1. urteurrena: 2021/03/05

*"Nahiz eta gure ondoan ez egon,
beti egongo zara gure bihotzetan"*

ZURE FAMELIXIA



MANUEL GENEROSO CORDERO

2022ko otsailaren 28an hil zen, 69 urterekin

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



"Hutsunea... Maitasuna bestekoa"

II. URTEURRENA
(2020-03-07)

Ez zaitugu ahaztuko, Clarita.

- ETXEKOAK -



AMETS MARTIN BASTIDA

2022/02/22

"Bihotzean eramango zaitugu"

ARITXULUETAKO SENIDEAK. BATEZ ERE, LEHENGUSU
ETA LEHENGUSU-TXIKI: AIMAR, MAGALI, ELORA, ANE ETA UXUE.

Martxoak 4/11

BARIXAKUA 4

ZINE-FORUMA

18:30 "La boda de Rosa" (Iciar Bollain). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Jarduera doakoa eta irekia (ez da izena eman behar). Pagatza emakume elkartearen eskutik. Portalea (areto nagusia).



ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "La verdadera historia de la muerte de Francisco Franco" (Spectare). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

ZAPATUA 5

DUATLOIA

16:45 Elbarko XXIX. Duatloia. Untzaga plaza.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17:00 "Zintzilik" (Zintzilik Teatroa). 5 euro. Coliseo antzokia.

KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

DOMEKA 6

KIROLA FAMILIAN

17:30 HH-ko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "LOF Ladies on Fight" (DOOS colectivo & Eva Guerrero). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

ASTELEHENA 7

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Ama" (Marie de Jongh). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

MARTITZENA 8

EMAKUMEAREN EGUNA

08:10 "Emakumeen hipersexualizazioa" tailerra.
09:10 Kontzentrazioa patioan. Eibar BHI. **10:50** "Emakumeen hipersexualizazioa" tailerra. La Salle Azitain ikastetxea. Debabarreneko Ikasle Abertzaleak taldearen eskutik.
18:30 Untzaga jubiletzeko poesia taldearen emanaldia. Untzagan.
19:00 Emakumearen Nazioarteko Eguneko manifestazioa. Untzaga plaza.

IBILBIDE OSASUNTSUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarrekin antolatuta. Elkarrekin lokaletik abiatuta (Ardantza, 11).

EGUAZTENA 9

IBILALDIA

09:11 Ikasten elkartearen ibilaldia: Elorrio-Iturriak. Bazkaria eraman. Irteera tren geltokian (Estaziño; 09:13, Ardantza).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Tarara" (Hika Teatroa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

EGUENA 10

HITZALDIA

10:00/12:00 "Euskalkiak". Hizlaria: Koldo Zuazo (Hispania eta Euskal filologian lizentziatua. Euskal filologian Doktorea). Ikasten elkartearen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.



ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutxetxea.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00 "Islandiako ur-jauzietan barrena" Mikel Sarasolaren dokumentalaren proiektzioa (euskaraz). Portalea (areto nagusia).



MUSIKA

20:00 Idoia Asurmendi: "Ilun eta abar". Korrika Kulturala. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokia.

ERAKUSKETAK

Martxoaren 27ra arte:

– "BERDINTASUNERAKO BIDE LUZEA - EUSKADIKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN" (Portalea)

Otsailaren 28ra arte:

– "HEMINGWAY & EUSKAL HERRIA" (Eibarko Armagintzaren Museoa)

ESKUALDEKO agenda

ERMUAN

SAGARDO EGUNA

5ean (zapatua) / 12:30

KONTZERTUA

5ean (zapatua) / 16:00 & 18:00
Ermua Antzokia



ELGOIBARREN

MUSIKA IKASTAROA

9an (eguztana) / 19:30

Musika Eskola

Joseba Irazokirekin.



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 10
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- **Ramon Hoz Alonso.** 69 urte. 2022-02-23.
- **Anselmo Gonzalez Aguado.** 81 urte. 2022-02-25.
- **Luis Babarro Feijoo.** 88 urte. 2022-02-25.
- **Julen Zabaleta Barrenetxea.** 101 urte. 2022-02-26.
- **Esteban Letamendia Uria.** 91 urte. 2022-02-28.
- **Manuel Generoso Cordero.** 69 urte. 2022-02-28.
- **Ramon Aranguren Zatica.** 60 urte. 2022-03-1.
- **Conchi Galdos Alberdi.** 90 urte. 2022-03-1.

Jaiotakoak

- **Hugo Lopes Garcia.** 2022-02-20.

Farmaziak

- BARIXAKUA 4**
EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- ZAPATUA 5**
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)
- DOMEKA 6**
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- ASTELEHENA 7**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- MARTITZENA 8**
EGUNEZ | Mendiñeta (Urkizu, 6)
- EGUAZTENA 9**
EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- EGUENA 10**
EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)
- BARIXAKUA 11**
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2022an,
Mendiñeta (Urkizu, 6)

JUAN CARLOS ARANZABAL EGIZABAL

2022/03/02



"Inoiz ez da erraza lagun bat galtzea, baina zurekin pasatutako uneak maitasunez gordeta ditugu gure bihotzetan"

EIBARKO KUADRILA



AMETS MARTIN BASTIDA

2022-02-22



*"Inoiz itzaliko ez den zeruko izarraren argia.
Beti gurekin... Askok maite zaitugu"*

ARAIA, ANER, MAIALEN ETA JULEN



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ALAIN**, eguaztenian 12 urte egin zenduaz-en-eta. Ondo pasau eta musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **EKHI**, atzo, eguena, 7 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AMETZ!** Atzo 12 urte jaixo ziñala. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Gora Eibar!



Zorionak, **IBAI!!** Martitzenian 4 urte beteko dozuz-eta. Musu potolo pillua famelixaren eta, batez be, Uxueren partez!!



Zorionak, **JON**, gaur 6 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **AIORA**, gaur 13 urte betetzen dozuz-eta. Mundiala zara!! Patxo haundi bat amatxo, aitatxo eta Oihenarten partez.



Zorionak, **MALEN** Gisasola, hillaren 8xan 6 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, amama **BLANKI**. Musu erraldoi bat Andres, Miren, Mikel, Libe eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MARTXEL** eta **ENEKO!** Zapatuan urtiak betetzen dozuz-eta. Musu erraldoi bana amañatarron partez.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **5an:** 17:00, 19:45, 22:30 (Antzerki)
- **6an:** 17:00
- **7an:** 20:30

“Competencia oficial”

Zuzendaria: Mariano Cohn



1 ARETOA

- **5an:** 22:30
- **6an:** 20:00

“En un muelle de Normandía”

Zuzendaria: Emmanuel Carrère




2 ARETOA

- **5an:** 22:30
- **6an:** 20:00
- **7an:** 20:30

“El triunfo”

Zuzendaria: Emmanuel Courcol



2 ARETOA

- **5an:** 17:00, 19:45
- **6an:** 17:00

“Uncharted”

Zuzendaria: Robert Fleischer



Iragarki laburrak


943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Bi logelako pisua hartuko nuke errentan. Tel. 688862073.
- Matrimonioa batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 667060292.
- Logela alokagai Eibar erdialdean. Tel. 660378181.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. Erreferentziak. Tel. 667060292.

1.3. Konpartitzeko

- Etxebarrian baserri bat elkarrekin erosi eta konpartitzeko lagun bila nabil. Deitu eta baldintza eta egoeraren berri emango dizut. Tel. 605768806. Oier.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Wenceslao Orbean bi bizikleta lagatzeko tokia behar dut. Garajea edo trasteroa hartuko nuke errentan. Lekurik baduzu, mesedez kontaktuan jarri nirekin. Tel. 653722817.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin). 10 urteko esperientzia. Tel. 643574998.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 624669425.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak (ikastaroa egin da) edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 632415374.
- Neska eskaintzen da etxe-garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 643202848.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643032341.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 658273486.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631425686.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Orduka. Esperientziarekin. Tel. 642855788.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688862073.

- Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile bezala, etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632237151.

- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketarako eta etxeko lanak egiteko. Orduka ere lan egiteko prest. Autorekin. Tel. 657794652.

- Emakumea eskaintzen da zerbitzari bezala, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671246723.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 74258102.

- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 747473047.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile bezala. Baita asteburuan ere. Tel. 631750397.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 693515502.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 637583745.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da asteburuetan jatetxe batean lan egiteko. Tel. 659539861.

- Nagusi bat zaintzeko pertsona behar da. Ordutegia: 09:30-11:30 eta 20:30-21:30. Derrigorrezkoa akreditazioa izatea eta janaria prestatzen jakitea. Tel. 646206088.

- Esperientzia duen sukaldaria behar da. Tel. 676081717.

- Esperientzia duen saltzailea behar da merkataritzarako. Tel. 676081717

- Agente komertziala behar dugu Mapfre-n. Erregistratu zaitez: <https://jobs.mapfre.com/job-invite/20597/>

- Ileapaintzailea behar da Eibarren amatsun baja bat betetzeko. Apiriletik azarora arte. Tel. 697484245 edo laga curriculum Bidebarrieta 16an..

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskerak

- Ingeles irakaslea behar da Elgoibar-ko akademia batean. Tel. 667261248.

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Pertsonak mugitzeko garabia salgai. 250 eurotan. Tel. 618083656.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688624326..

6.4.. Bestelakoak

- Jaiotzeko dauden bikiendako karroa behar dugu Caritasen. Tel. 688751764.
- Gurpil-aulkira egokitu daitekeen motorra behar da. Tel. 690311429. Pilar.

ek!

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus

+ osasun gida

Kirol Medikuntza

ZERBITZU MEDIKOAK
ATHLETE PSICOTERAPIA ETA KIROL NEPREKONTZEA

- OINARRIZKO MEDIKU/KIROL AZTERKETA
- ESPORTZU PROBA KLINIKOA
- ESPORTZU KIROL PROBA



EIBAR Indalecio Ojanguren, 1 - behea 6
Deia hartzen edo informazio jasotzeko:
cvfisiologiadeportiva@gmail.com
943 05 78 98

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
838200124
kolegiatu zerbaita



T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegua
www.ametspsicologia.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G21197 kolegiatu) - Master P.M.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

Logopedak

AHOTSLAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Deglutzio atipikoa	TDAAH
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zkoa.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zkoa.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zkoa.)

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
GUREZ ETA ARRATZALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

Okulistak

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

· Miopia ebakuntzak
(femtosegundoko laserrarekin)


943 204173



Plaza Barria 2. 2º, Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zkoa

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

ERAIKINEN MANTENUA

ITURGINAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 90
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

I.T.E. IMPROCIÓN
TECNOLÓGICA DE
EDIFICIOS



INICIACIÓN
TECNOLÓGICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.

info@ejtofeite.com TEL. 943 80 38 00
AJT Zhurtasuna S.L.
Barrena, 6 - beheko etb.

Miguel Azpiri
ITURGINA

- Konponketak
eta ordezkatzek
ITURGINTZAN
- Konponketak
eta inbenbideak
KALEFAKZIOAN

BEREHALAKO
ZERBITZUA
ematen da

635 13 38 41

AROTZAK

ERREFORMAK

KRISTALAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfneak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA

EBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMOIEN KOORDINAZIOA

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3.a

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903

Arikitaneko Zubian

IGELTSEROAK

PINTURAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnua. 943-120108

www.irazabal.net

baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21
Tel: 943 201 922

www.bagliettoeibar.com
bagliettoeibar@kaixo.com

ELEKTRIZITATEA

Tel. 667 54 89 16

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922 www.thelecer.com



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.